

Baselizako Ama Neketsua

Bere jantzi ta buruko beltza
matrail zurbiñen itungari,
besoan zuan semetxuaren
gaxoa, bere goxogari,
andre alargun erukari bat
mendiak-ziar bideskari,
udabefiko egun batean
zijoan itun ta negarti.

Bidean bere biotzarentzat
pozkarri ezer arki gabe,
naiz izadiak egun alayen
alaitasunez iripare;
andreak bere semetxoari
begiratuaz beti ere,
galdetzen zuan: «¿Iñor izan da
naigabeturik gaur ni beste?»

Begiratzen zion gizaxuari
arpegi argal zurbiñera,
baita itzaldiaz zijoazkion
begi maitati ayetara,
eta igaririk erukariak
laister semetxo gabe zala,
esaten zuan: «Naizen besteko
naigabeturik iñor ez da».

Ume gaxoak amaren kezka
pozez uxatu nairik edo,
lepotik eldu ta laztanduaz
esaten dio guzliz gozo:
—¿Ez gera amatxo geure bidean
pizkatxo baten geldituko
zelaiko lore polit oyekin
txorta eder bat egiteko?

—Ene bai seme, zure amatxok
zuk nai dezuna egingo du;
ta nai bezela lore oyekin
txorta ederra baita lotu.

Esan ta egin, ama gozoak
 semea bigun utzitzen du,
 eta zelaiko lore pitxiak
 txukun, poliki, biltzen ditu.

Gaxoz ain itun zitun begiak
 alaitzen zaizka semeari;
 semearenak ala ikusita
 alayagotu baita amari;
 poz bat geyago eman al izan
 dio semelxo kutunari,
 ta poz onekin ama maiteak
 beřekin dio bideari.

* * *

Mendi-osteko egi batean,
 tantai zař baten itzalpean,
 andreak itun zeraman bide
 neketsuaren azkenean,
 baselizatxo txukun txiki bat
 bere pozkaři arki zuan,
 ta gure Ama Neketsuaren
 irudi on bat baselizan.

Seme maitea josita zegon
 kurutz-ořean itun, zutik...
 neskutz edeřak azaltzen zuan
 miřiak, eizuan ez, berdiřik;
 bazirudian zesala, zein da
 atsekabien magalelik:
 «Ikusi ikusi ote dan miřik
 nere miř au dan beztekorik».

An belaunbiko andreak apal
 begitzen zion neskutzari,
 ĵai zein benetan arkitzen zuan
 kurutz-ořean eřukarři!
 Bere aũfean iraintzen zuten
 Seme Jainkozko maiteari
 lagundu nai, ta lagundu ezin,
 miřez, negařez, laři... laři...

Biotz-bařuan eřuki biziz
 sortu zitzaizkan malkoakin
 andreak negar egiten zuan
 kurutz-ořeko neskutzakin.

Ainbesteraño zitun Miren'en
atsekabeak gogoan miñ,
orduarteko bere samiñak
arkitu zitun guztiz ariñ.

.....

Bitarte artan, ume gaxoak,
bere eskulxuak tolestuaz,
—Ene ama!xo—galdetu zion—
¿zer du gaur Ama zerukoak?
—Nik zu bezela, ofek ere du
Semea miñez, ta gaxoak
ezin eman nik zuri bezela
afek nai ditun loretxuak,

Ondoan zeukan lore txortea
umeak artzen du eskuan
esanaz: —Tori, Zeruko Ama,
Semetxuari abek eman.

Baita Neskutza efukitu zan
bere efukia zutenetan,
ta osasuna biurtu zion
umetxuari une artan.

TENE

NAGUSI-MOŔOYAK

—Tira Parxi, asi biar dezu ukuluko armiama-sare aundienak
biltzen.

—Zertako ditu armiama-sariak?

—San Bartolome jayetako lengo egunian ardoz bete gifuzen
botilak biltzeko.

—Zikinkeri edefa!

—¡A, gizajua! zuk ez dakizu Jainko txikiyaren befi. Befogei
urtez zafago jartzen du armiama-sariak botilako ardua.

—Ez diagu beste ofenbeste aditu!
